



Nola aplikatzen eta lantzen dugu Irisgarritasun Unibertsala Nafarroako Gobernuaren Herritarren arretarako bulegoetan?

Nafarroan, herritarrei **arreta emateko***
2 bulego daude.

Bata Iruñean dago eta bestea Tuteran.
Iruñeko bulegoaren barruan
Erregistro Orokorra dago.

Arreta ematea*:

Beste pertsona bati
entzutea, laguntzea
edo bere beharrei erantzutea da.

Bulego hauek Nafarroako Gobernuko
Lehendakaritza eta Gobernu Irekiko
Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen ditu.

Bulegoetan hainbat zerbitzu eskaintzen dizkizugu.
Garrantzitsuenak honako hauek dira:

- Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen
tramitazio eta zerbitzuei buruz
informazioa ematen dizugu.
Tramitazioa paperak gestionatzea da.
- **Erregistro-erakunde** bat gara,
hau da, edozein Administrazioari
bidali nahi diozun dokumentazioa
jasotzen dugu.
Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen
zerbitzuei buruzko informazioa ematen dizugu.



- Nafarroako Gobernuarekin **izapideak*** egiteko dokumentu publiko eta pribatuen kopiak konpultsatzen ditugu.
Dokumentu bat konpultsatzean, bulegoan lan egiten duten pertsonak kopia jatorrizko dokumentuarekin bat datorrela ziurtatuko dute.
- Zure identitate digitala sortzen eta erabiltzen lagunduko dizugu.
Identitate digitala Administrazio Publikoekin tramiteak Internet bidez egiteko klabe bat da.
- Tramiteak Internet bidez egiten laguntzen dizugu.
- Nafarroako Foru Administrazioari buruzko zure kexak eta proposamenak jaso eta bidaltzen ditugu.
- Zure proposamenak entzuten ditugu eta Nafarroako Gobernuako departamentu ezberdinei hobetu daitezkeen gaien berri ematen diegu.

Herritarren arretarako bulegoetan

irisgarritasun unibertsala* eta inklusioa hobetzeko lan egitea dugu.

Hau da, bulegoetan lan egiten dugun pertsonentzat oso garrantzitsua da

pertsona guztiak baldintza berdinetan **artatzea***, nahiz eta pertsona bakoitza desberdina izan.

Izapidea*:

Zerbait lortzeko edo amaitzeko egin behar diren urratsen edo prozesuen multzoa da.

Irisgarritasun unibertsala*:

Pertsona guztiek, haien gaitasunak edo egoerak edozein direla, inguruneak, zerbitzuak, produktuak eta informazioa erraz erabiltzeko eta ulertzeko aukera izatea da.



Egokitzapenak egiten ditugu
gure inguruneak irisgarriagoak izan daitezen
eta Nafarroako Gobernuko beste sail batzuei
berdina egiten laguntzen diegu.

Artatzea*:

Norbaiti laguntzea
edo bere beharrei erantzutea da.

Irisgarritasuna gestionatzeko sistema batekin
lan egiten dugu.

Sistema hau UNE 170001-2 izeneko
Espainiako arauan oinarritzen da.
Lan-sistema honekin gure bulegoak
irisgarriak eta pertsona guztientzat direla
ziurtatzen dugu.

Gainera, irisgarritasun arau honetan esaten denaz gain,
irisgarritasuna hobetzeko
beste hainbat gauza gehiago egiten ditugu.
Hau gure zerbitzuak hobetzeko
borondatez* egiten dugu.

Borondatez*:

Zerbait norberak nahi duelako
egitea da.
Hau da, inork behartu gabe
eta norberaren erabakiz
egiten den ekintza bat da.

Zer da irisgarritasun unibertsala?

Lekuak irisgarriak dira
bertan pertsona guztiak sar daitezkeenean
eta ahalik eta laguntza txikienarekin
modu eroso eta seguruan parte hartu dezaketenean.

Gauzak irisgarriak dira
pertsona guztiek modu seguru, erraz
eta erosoan erabil ditzaketenean.



Nola lan egiten dugu irisgarritasun unibertsala hobetzeko?

Honako hau egiten dugu:

- **Desgaitasuna duten Pertsonen**

- **Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa**

- betetzen dugu.

- Gaztelaniaz Convención Internacional sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad deitzen da.

- Irisgarritasun unibertsalarekin, inklusioarekin eta DALCO **irizpideekin*** betetzea.

- Inklusioa** inor kanpoan ez uztea da.

- DALCO**k honakoa esan nahi du gaztelaniaz:

- **Deambulación** edo **mugitzea**.

- Leku batetik mugitzea da.

- **Aprehensión** edo **heltzea**.

- Gauzak hartu ahal izatea da.

- **Localización** edo **kokapena**.

- Lekuak aurkitzea, horiek ulertu ahal izatea eta haiengatik orientatzea.

- **Comunicación** edo **komunikazioa**.

- Informazioa transmititu ahal izatea.

- Irisgarritasun unibertsalari dagokionez zerbitzu publikoentzat eta enpresentzat eredu ona izan nahi dugu.

Horrela, zerbitzu batek

pertsona guztiei arreta berdintasunean emateko,

Irizpidea*:

Balorazio edo ebaluazio bat egiteko erabiltzen den arau edo neurri bat da.



bere irisgarritasun unibertsala hobetzeko
zer egin behar duen jakin nahi badu,
guri galdetu ahal izango digu
eta guk lagundu ahal izango diogu.

- Gure lan-ingurunea guztientzat irisgarria izan dadin,
nola lan egin behar dugun antolatzen dugu.
Beste ingurune batzuk ere
unibertsalki irisgarriak egin nahi ditugu.

- Irisgarritasun unibertsala hobetzea.
2030 Agendako

Garapen Iraunkorreko Helburuak

kontuan hartzen ditugu.

Helburu hauek **GIH** ere deitzen dira.

Gaztelaniaz Objetivos de Desarrollo Sostenible
edo ODS dute izena.

17 helburu dira

eta planetari kalterik egin gabe

herrialdeen ekonomia

eta pertsonen bizitza hobetzeko balio dute.

Garapen Iraunkorreko Helburuak edo GIHeK ere
pertsonen eskubideak errespetatzen dituzte.

Zehazki, GIH hauekin lan egiten dugu:

- **GIH 8. Kalitatezko lana pertsona guztientzat.**
Pertsona guztiek
kalitatezko lana izatea bilatzen dugu.
- **GIH 10. Desberdintasunak murriztea.**
Hau da, herrialde bereko pertsonen artean



eta herrialde ezberdinen artean
berdintasun handiagoa egotea.

- **GIH 11. Hiri eta kokaleku inklusiboak.**
Leku guztiak pertsona guztientzat izatea
bilatzen dugu.
- **GIH 16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak.**
Gerrarik gabeko mundu inklusiboa eta bidezkoa
bilatzen dugu.

Zer printzipio eta balio ditugu lan egiteko?

Printzipioak pertsona edo erakunde baten
jokatzeko modua definitzen duten
arauak edo ideiak dira.
Printzipioen barruan balioak daude.

Balioak pertsonen edo erakundeen ezaugarriak dira.
Ezaugarri hauek hobeak izatera bultzatzen gaituzte.
Hauek dira gure printzipioak eta balioak:

- **Pertsonek duintasuna izateko,
autonomia izateko
eta beren erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea dute.**
Pertsonek beren baitan balioa dute
eta beren erabakiak hartzeko
eta beren kabuz moldatzeko eskubidea dute.
- **Bizitza independentea.**
Pertsonek beren bizitzari buruz erabakitzeko,
beren nortasuna garatzeko
eta gizartean parte hartzeko eskubidea dute.



- **Diskriminaziorik ez egotea.**
Pertsonak ezin dira okerrago tratatu,
adibidez, desgaitasuna dutelako
edo beste herrialde batekoa direlako.
- **Pertsonen arteko desberdintasunak errespetatzen ditugu.**
Gizartea osatzen dugun pertsonak
oso desberdinak gara
baina eskubide berdinak ditugu.
Horregatik pertsona guztiak onartu behar ditugu.
- **Entzute aktiboa.**
Pertsonak oso garrantzitsuak dira
eta horregatik, interesez eta arretaz entzun behar zaie.
- **Aukera-berdintasuna.**
Pertsona guztiok aukera berberak ditugu,
adibidez, komunitatean parte hartzeko.
Aukera-berdintasuna dagoenean,
ez dago diskriminaziorik.
- **Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.**
Gizonek eta emakumeek
eskubide berdinak dituzte
eta aukera berdinak izan behar dituzte.
- **Normalizazioa.**
Pertsona guztiok edozein leku eta ekintzetara joateko,
bertan parte hartzeko
eta leku edo jarduera horretaz gozatzeko
eskubidea dugu.



- **Irisgarritasun unibertsala.**

Pertsona guztiok eskubidea dugu
leku, produktu eta zerbitzu guztietara
modu erraz, eroso, seguruan eta sinplean iristeko.

- **Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua.**

Produktuak edo espazioak diseinatzeko
pertsona gehienengan pentsatzea da.

- **Gizartean parte-hartzeko aukerak izatea
eta inklusioa eraginkorra izatea espazio guztietan.**

Pertsona guztiek gizarteko jardueretan parte hartzeko
eskubidea dute, adibidez,
politikan, hezkuntzan, lanean eta kulturaren.

- **Elkarrizketa zibila.**

Elkarrizketa zibila arauak egiterakoan parte hartzeko,
ideiak proposatzeko eta horiek betetzen direla zaintzeko
pertsonen dugun eskubidea da.

Parte-hartze hau, adibidez,
desgaitasuna* duten pertsonen
elkarrekin bitartez egiten da.

- **Desgaitasunen bat duten pertsonen
bizitza eta nortasuna errespetatzea,
batez ere haurren.**

Garrantzitsua da
haurrek beren nortasuna babesteko duten eskubidea errespetatzea,
hau da, haien izen-abizenak eta bestelakoak babestea.

- **Nafarroako Gobernuaren Administrazioaren egindako
politika guztien irisgarritasun unibertsala kontuan hartzea.**

Desgaitasuna*:

Pertsona batek
eguneroko jarduerak egiteko
muga edo zailtasunak izatea da
adibidez, ikasteko, mugitzeko,
komunikatzeko
edo ingurunearekin erlazionatzeko.



Nafarroako Administrazio Publikoaren
departamentu guztiek
haien zeregin guztietan
degaitasuna duten pertsonak behar dutena
kontuan hartu behar dute.



Dokumentu honen azalpen batzuk
Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko
eta haien gizarteratzerako Lege Orokorretik atera dira.
Azalpen hauek Irakurketa Errazean idatzita daude.

Texto adaptado y validado

por la **Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra**
de **ANFAS**

Logo europeo de lectura fácil: "© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe.

Más información en <https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>

